Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: LCT4-BYBM-KT3B-TIT4

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Pedro Alegre Arrizabalaga RESPONSABLE DE TRANSPARENCIA MUNICIPAL Y BUEN GOBIERNO DIGITAL (02/02/2026 13:34 CET)

# *UDAL ALDIZKARIA IMPRIMATZEKO ETA BANATZEKO LANEN KONTRATAZIOA*
# CONTRATACIÓN DE LOS TRABAJOS DE IMPRESIÓN Y DISTRIBUCIÓN DE LA REVISTA MUNICIPAL

**– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –**

| | |
|---|---|
| ***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA** | ALKATETZAKO KABINETEA / GABINETE ALCALDÍA |
| ***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE** | 2026ZAUN0015 |

## 1.- KONTRATUAREN XEDEA

Irungo Udalaren aldizkaria inprimatzeko eta Irungo auzoetan postontzietara banatzeko zerbitzua ematea.

Ale kopurua 27.000 da edizio/zenbaki bakoitzeko (urtean 3-5 edizio)

## 1.- OBJETO DEL CONTRATO

Prestación del servicio de impresión de la revista municipal del Ayuntamiento de Irun y posterior distribución a través de buzoneo por los diversos barrios de Irun.

El número de ejemplares es de 27.000 por edición/número (entre 3 y 5 ediciones al año)

## 2.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Irungo Udalak (Komunikazio Zerbitzua) posta elektronikoz bidaliko dio enpresa esleipendunari inprimatu beharreko aldizkariaren PDF artxibo bat.

PDF hori bidali ondorengo 5 egunetan inprimatu beharko dute.

Tirada osoa inprimatu aurretik, enpresa esleipendunak ale batzuk eman beharko dizkio Komunikazio Zerbitzuari, honek onets dezan.

Enpresa esleipendunak inprimatutako edizio bakoitzaren PDF artxiboa egin eta Irungo Udalari eman beharko dio.

## 2.- CARACTERISTICAS DEL CONTRATO

El Ayuntamiento de Irun (Servicio de Comunicación) enviará por correo electrónico a la empresa adjudicataria un achivo PDF de la revista a imprimir.

La impresión se realizará en un plazo de 5 días desde este envío.

Con carácter previo a la impresión de toda la tirada la empresa adjudicataria deberá entregar en el servicio de Comunicación varios ejemplares para su aprobación.

La empresa adjudicataria deberá realizar y entregar al Ayuntamiento de Irun un archivo PDF de cada edición impresa.

## 3.- INPRIMAKETAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Inprimaketak ezaugarri hauek izango ditu:

- Formatua: bertikala
- Neurria: Tolestua: 235 x 300 mm.

## 3.-CARACTERISTICAS TECNICAS DE LA IMPRESIÓN

La impresión tendrán las siguientes características:

- Formato: vertical
- Tamaño: plegado 235 x 300 mm.

- Orrialdeak: 24 (azalak barne)
- Materiala: Eural premium edo antzekoa (Cyclus Print 90 grs.)
- Papera: % 100 birziklatua
- Koloreak: Kuatrikromia 4+4
- Koadernaketa. 2 grapako astoa
- Inprimatzea: offset
- Ale-kopurua: 27.000 ale (1. edizioa/zenbakia)

- Páginas: 24 (incluidas portadas)
- Material: Eural premium o similar (Cyclus Print 90 grs.)
- Papel: 100% reciclado
- Colores: Cuatricromía 4+4
- Encuadernación. Caballete 2 grapas
- Impresión: offset
- Tirada: 27.000 ejemplares (1 edición/número)

4.- BANAKETA

Postontzietan banatuko da.

Postontzietara bereizi gabe banatuko da Irungo udalerrian (26100 postontzi inguru), eta gainerako aleak Komunikazio Zerbitzuan entregatu beharko dira, banaketa hasi eta gehienez ere 3 eguneko epean eta inprimaketa bukatu ondoren.

Enpresak aldizkaria bakarrik banatuko du postontzietara; ezin izango du harekin batera beste liburuxkarik, programarik, argitalpenik eta abarrik banatu, Komunikazio-zerbitzuaren baimenik gabe.

4.- SERVICIO DE DISTRIBUCION

La distribución se realizará mediante buzoneo.

El buzoneo se realizará de forma Indiscriminada en el término municipal de Irun (26100 buzones aprox.) y entrega en el servicio de Comunicación del resto de ejemplares, en un máximo de 3 días desde su inicio, que tendrá lugar una vez finalizada la impresión.

La empresa deberá buzonear la revista en exclusiva, no pudiendo acompañarla de otros folletos, programas, publicaciones, etc. no autorizadas por el servicio de Comunicación.

UDAL GARDENTASUNEKO ETA GOBERNANTZA ON DIGITALEKO ARDURADUNA
RESPONSABLE DE TRANSPARENCIA MUNICIPAL Y BUEN GOBIERNO DIGITAL